



## Eskola txikietakoak Berazubin bildu dira «harremanak bultzatzeko»

**TOLOSALDEA** ▶ Eskola Txikien IV. Kirol Topaketetan eskualdeko 208 ikaslek jarduera ugari burutu zituzten

**«GUSTURA»** ▶ Harremanak eta kirola uztartuz, antolatzaileek helburuak «bete» direla azaldu dute ▶ 6




Gazte bat jaurtiketa proba egiten, atzo Berazubiko zelaian. N. URBIZU

**TOLOSALDEA** ▶

## Haur sahararrak udan etxean hartzeko kanpaina abiarazi dute

Ekainaren 2a izango da izena emateko azken eguna ▶ 5



Neska saharar bat. I. TERRADILLOS

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** ▶

## «Demokrazia eza» gaitzetsi dute alderdi gehienek

EAE-ANVren 9 zerrenda baliogabetu dituzte gure eskualdean ▶ 2

**TOLOSA** ▶

## Donostiarren aurkako lehia Beotibar zesta-punta taldekoak

Herriarteko  
Txapelketan, gaur,  
Uzturpe frontoian ▶ 4

**LIZARTZA** ▶

## Ekainean debutatuko du Mikel Olaetxea pilotariak

Asegarce  
enpresarekin  
izango da ▶ 6

**TOLOSA** ▶

## ‘Egunkaria auzia’ epaituko du Auzitegi Nazionalak

Erabakia fiskalaren iritzia kontra eta arrazoitu gabe hartu du ▶ 4

**villabona**  
optika

Zatoz Villabonako optika berrira!

Ireki berria dela eta %10eko **deskontua**  
produktu guztietan maiztzean zehar

Kale Berria 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40



# «Demokrazia eza» salatu dute alderdi politiko gehienek

Bi eskualdeetako bederatzi herritan AS eta EAEk ezin izango dituzte zerrendak aurkeztu Espainiako Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiaren ondorioz

ASIER IMAZ

Gure bi eskualdeetako bederatzi herritan ANV-EAE eta ASB alderdiek ezin izango dituzte euren zerrendak aurkeztu 2007ko udal hauteskundeetarako, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzo hartutako erabakiaren ondorioz.

Asteasu, Elduain, Ibarra, Iruera, Leaburu-Txarama, Lizartza, Tolosa, Zizurkil eta Aresorekin batera, Auzitegi Konstituzionalak Euskal Abertzale Ekintzaren 124 zerrenda ezeztatzea berretsi zuen. Horiez gain, Abertzale Sozialisten 252 zerrendek ere ezin izango dute Euskal Herriko udal eta foru erakundeetarako bozetan aurkeztu. Honela, berretsiak izan dira joan den larunbatean eta igandean Auzitegi Gorenak hartutako erabakiak.

Erabaki honen ondorioz, Nafarroako Parlamentuan eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan batere ordezkariak politikorik ez dute izango ASk eta EAEk, Bizkaiko Batzar Nagusietan lau barrutietatik bakarrean lortu ahal izango ditu hautetsiak EAE-ANVK, eta Araban hiru barrutietatik bitan. Hiriburuen artean, Iruñeko Udalean baino ez du ordezkariak lortzerik izango ezker abertzaleko alderdi historikoak, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko hautagaitzak baliogabetu egin dizkietelako, beste 121 udalerritakoak bezala.

## «PSOE eta EAJ eskutik»

Antton Izagirre, Tolosako EAEren zerrendaburuak, PSOE eta EAJren ardura salatu du. «Gezur baten gainean hartutako erabakia izan da hau. Mozorro juridikoz estali nahi izan dute



Bi eskualdeetako 9 herritan bezala, Ibarra ere AS eta EAEren zerrendak ezeztatu dituzte. HITZA

baina kalkulo baten arabera erabakia izan da. Prozesuari oztopoak jartzeko PSOEek egin duen kalkuloa izan da. EAJ ezinbesteko bide lagun izan du PSOEk. Eta hau ez da kasualitatea, Tolosaldean zigor politiko honen neurria kasualitatea ez den bezala. Eskualde honetan gehiengo politikoa zigortu nahi izan dute, interes espekulatzaila haundiak daudelako. Horrela euren eskuak aske izango dituzte euren negozioak egiteko». Hauteskundeetan parte hartuko dutela ere jakinarazi du Antton Izagirrek, «ezkerzale eta independentistek apustu bat dugu mahai gainean. Hauteskundeetan egongo gara eta

bozka hori Euskal Herriaren aldeko prozesua indartzeko izango da. Gure ahalegin guztiak bide horretan bideratuko ditugu».

## Ezker abertzalea «aurrera»

Tolosaldeko ezker abertzaleak prentsa ohar batetan egoeraren gaineko «lehen irakurketa» plazaratu du. «Ezker abertzaleak, gatazka gainditzeko urrats garrantzitsuak eman ditu denbora guzti honetan. Autonomia berri baten planteamentua barne. Ezker abertzaleak, prozesuari begirako inbertsio eta ekarpen gisa, ASB legalizatzeko urratsa eman zuen eta

hau erasotzea erabaki zuen PSOEren gobernuak». Hala eta guztiz ere gatazkaren irtenbideen bila jarraituko dutela adierazten dute tolosaldeko ezker abertzaleak. «Gatazka gainditzeko apustuaren sendotasunari berretsi egiten dugu.

Amaitzeko, «ezker abertzaleak herritarren eskubideak errespetatuak izan daitezen, beste alderdi politikoen erantzukizunak» har ditzatela eskatzen diete. Honekin batera galdera bat luzatzen diete beste alderdi politiko guztiei: «Herritarren borondatea errespetatu izan dadin zer egingo duzue zuek?».

## ERREAKZIOAK ▶

### IÑAKI IRAZABALBEITIA EB-ARALAR



«Tinko gaitzesten dugu Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erabakia, herritar asko kanpoan geratzen direlako. Alderdien legea indarrak gabe gera dadin eskatzen dugu».

### ANGEL YAÑEZ PP



«Espainian eskuinetik gidatu behar dut eta Ingalaterran ezkerretik. Botua eman eta jasotzeko legea bete behar da».

### OSCAR RENEDO PSE-EE



«Ezker abertzaleak Tolosan ahalegin handiagoa egin zezakeen, beste leku batzuetan egin duen bezala. Zergatik Hernanin legezkoak dira eta Tolosan ez. Hausnarketa bat egin beharra dauka ezker abertzaleak galdera honen inguruan».

### ONINTZA LASA EA



«Pertsona batzuri bere parte-hartzea ukatzea, demokrazia ukatzea da. Oinarrizko eskubideak ezin dira inondik inora ukatu. Hauteskundeetan lanean jarraituko dugu, ahalik eta zinegotzi gehien lortu eta kanpoan geratu diren herritarren parte hartzea bultzatzeko».

### ANTTON IZAGIRRE EAE



«Erabaki antidemokratikoa hartu dute. Antzeko erabakiak hartzen dituzte Estatu faxistek. Gezur baten gainean hartu dute erabakia, nahiz eta mozorro juridikoz estali nahi izan duten. PSOEek EAJ ezinbesteko bidelagun izan du».

### BEGOÑA TOLOSA EAJ



«Erabakia alderdien legearen ondorioa da, eta horren bestez, alderdien legea ezabatu egin behar da».

**Beti Alai**  
jateak

Garaian  
garaiko janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**MUNIZIBAL** lantzariak

- 500 m<sup>2</sup> bi solairutan
- Bertako okasiozko altzariak
- Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:

Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

Tel.: 943 65 17 61  
San Inazio 2  
TOLOSA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## GAURKO IRUDIAK ▶



## Hauteskunde kanpainaren lehenengo eguna Tolosako kaleetan

**Erredakzioa** ▶ Hauteskunde kanpaina hasia dela nabarmen da esualdeko herrietan, eta hori dela eta hainbat txokotan hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoekin kartelak ikus daitezke atzo goizetik aurrera. Tolosan, esaterako, Triangulo Plaza, San Frantzisko etorbidea eta Araba etorbidea atzo taulez beteta azaldu ziren, baina herrietako edozein txoko ere egokia izan daiteke al-

derdi bakoitzak bere burua sustatzeko. Honela, banketxe, telefono-kabina nahiz zutabeak ere alderdiek aprobetxatu egiten dituzte jendearen atentzioa emateko. Herenegundik hasita 15 egunez, luzatuko da hauteskunde kanpaina, maiatzaren 25era arte, hain zuzen ere. Larunbateko hausnarketa egunaren ondoren, bozkatzeko eguna iritsiko da: hilaren 27a. N. GARZIA

## IBARRA ▶

## Eak Luis Alonso aurkeztu du Ibarako alkategai

Ostegun arratsaldean egin zuten hautagai zerrendaren aurkezpena, Tolosako egoitzan



Itziar Jauregi, Luis Alonso, Iñaki Galdos eta J. Ignacio Arozena. A. IMAZ

## ERREDAKZIOA

Ahaldun Nagusirako hautagaia den Iñaki Galdosek lagunduta, Eusko Alkartasunak Luis Alonso aurkeztu zuen Ibararako alkategai gisa osteguneko EArenean eginiko aurkezpenaren bitartez. Bertan datozten hauteskundeei begira osatu

duten zerrendaren nola helburu nagusien berri eman zuten.

Euren hitzetan Eusko Alkartasunak ahalegin handia egin du ilusioz beteriko zerrenda berri bat aurkeztu ahal izateko. «Alderdia herrira zabaldu nahi izan dugu eta horren ondorioa izan da aurkezten dugun zerrendaren erdia baino gehiago

ibartar independentez osatua egotea».

Luis Alonsorekin batera, Mila Garcia de Iturrospe, Itziar Jauregi, Juan Ignacio Arozena, Vanesa Alzate, Francisco Javier Izaguirre, Juan Carrera, Jon Ander Bastarrica, Asier Alonso, Gartxot Agirre, Joseba Gorostiaga eta Pedro Etxezarreta izango dira Ibarako zerrenda osatzen dutenak.

## Herritarren «garrantzia»

Hizlariak politikan «beharrezkoa den» zintotasunaz jardun ziren eta aldi berean herritarren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu zuten. «Ibartarrek alternatiba bat merezi dute, udaletxetik berriekin lan egiteko, elkarrizketak eta gauzak egiteko garaian jarrera garden eta ireki bat erakutsiz».

Eusko Alkartasunaren erronken artean etxebizitzaren arazoari aurre egiteak lehentasuna izango duela adierazi zuten baina beste hainbeste gai ahaztu gabe, hala nola aparkalekuak, zerbitzu sozialen sakontzea, kultur politika parte-hartzailea bultzatzea...

*Ibarrarekin eta Ibarrenaztat.* Hori da hauteskunde hauetarako Eusko Alkartasunak aukeratu duen leloa.

## IBARRA ▶

## Paqui Sanchez EB-Aralarren alkategai izanen da

Koalizioaren lehentasunen artean, pluralismoa eta berdintasun soziala

## ERREDAKZIOA

Paqui Sanchez, Jokin Iturralde eta Rufino Goñi izanen dira Ibarren Ezker Batua-Berdeak eta Aralarreko zerrenda buru datozten hauteskundeetan. Koalizioa Ibarren ezkerrekoa irudikatzen duen helburuarekin sortu dela adierazi dute.

Sanchez, Iturralde eta Goñi Ibarra herri «justo eta solidario» batean bihurtzeko lan egingo dutela azaldu dute. Horretarako haien lehentasuna «ondasun publikoaren eta herriaren arteko banaketa egokia egitea» izanen da. Garraio publikoari dagokionez, aldiz, autobus-txartel bakarra bultzatu nahi dutela ere azaldu dute.

BI HITZETAN ▶  
MARI MUJICA  
(LAB SINDIKATUA)

## «Udalari eskatzen diot demokratikoa izatea»

E. Ezeiza ▶ Tolosaldeko eta Goierriko LABeko arduraduna da Mari Mujika.

## Zer nolako balorazioa egiten duzu Tolosako Udalarren azken lau urteotako agintealdiaz?

Azken lau urteotako jardunaldia, udaletxearen aldetik erabat ilegala izan da. Ondorioz, legealdi honetan Tolosako 2.500 herritarren bozka ez dira kontuan hartu udaletxearen barruan. Hori dela eta, beraien ez dagozkien lekuetan egon dira zenbait zinegotzi, inongo oposiziorik gabe. Bestalde, EAJk bere propaganda egitean, lau urteetan Tolosaldeko industriaren egoera erabat ahaztua eta alboratua izan ondoren, orain, berriz, eskualdeko ekonomia berpiztea duela helburu eta enplegua sustatu nahi duela esaten ari da.

## Orohar, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalarri?

Printzipioz, demokratikoa izatea, hala ere, herenegun gaueko erabakiarekin garbi ikusten da demokratikoak ez direla izango, eta esleriekuen lapurreta berriro errepikatuko dela. Eskatzen dudana da, legearen barruan lehiatuko diren alderdiek koherenteki jokatzeko eta hainbeste kritikatzeko duten alderdien legea praktikara ez eramatea.

## Zure esparrutik, zer nabarmenduko zenioke Udalarri?

Tolosaldearen egoera sozio-ekonomikoa gaizki ikusten dugu, hori dela eta, alderdi eta eragile guztiei eskatzen diegu Tolosaldearen aldeko apostua egiteko.

## EKITALDIAK ▶

## AMEZKETA

**Gaur. 12:00etan.** Ezker abertzalearen hautagai-zerrendaren aurkezpena, gela polibaleantean.

## TOLOSA

**Gaur. 19:30.** EArenean ekitaldi nazionala, 19:30ean, Kultur Etxean, Begoña Errasti eta Iñaki Galdosekin.

## TOLOSA

**Gaur. 11:00.** Ezker Batuarren kanpaina ekitaldia, Trianguloan.

TOLOSA ▶ EUSKAL PRENTSA

# Auzitegiak 'Egunkaria auzia' epaituko du

Fiskala ez dator bat erabaki honekin, dena den, Auzitegi Nazionalak ez ditu erabakiaren nondik norakoak argitu



Auziperatuek behin eta berriro eskatu dute epaiketak ez egitea. e.s.

Auzitegi Nazionalak. Epaiaketa-  
ren eguna aurrerago finkatuko  
du. Lehenago fiskalak gertae-  
rak kalifikatu behar ditu.

Manuela Fernandez Prado,  
Nicolas Poveda eta Ramon  
Saez Valcarcel epaileek osu-  
tako salaren erabakia bi orriko  
auto batean iritsi da, baina ber-  
tan ez dute ezin arrazoirik  
azaltzen.

Auzitegi Nazionaleko zigor  
salaren erabakia ezustekoa  
izan zen, bi arrazoi nagusire-  
ngatik. Batetik, Fiskaltzak auzia  
ixteko eta epaiketak ez egite-  
ko eskatu zuelako joan den  
abenduan, auzipetuen kontra-  
ko frogarik ez zegoela argudia-  
tuta. Bestetik, epaiketa egitea  
eskatzen zutenak (AVT eta Digi-  
nidad y Justicia elkarteak) he-  
rri akusazio direnez ahozko  
epaiketak ez egitea izango li-  
tzatekeelako logikoena, juris-  
prudenziazaren arabera.

## ERREDAKZIOA

Fiskalaren iritzia ez dator bat eta  
arrazoitu gabe Espainiako Au-  
zitegi Nazionaleko zigor arloko  
1. salak *Egunkaria auzian*  
ahozko epaiketa egitea erabaki  
du, joan den astelehenean si-

natu eta aldeei herenegun jaki-  
narazitako auto labur batean.  
Ondorioz, *Egunkaria auziko*  
zazpi auzipetuek: Joan Mari To-  
rrealde, Iñaki Uribe, Martxelo  
Otamendi, Xabier Oleaga, Xa-  
bier Alegria, Pello Zubiria eta  
Txema Auzmendi epaituko ditu

TOLOSA ▶ ZESTA-PUNTA

## Donostiarren aurka lehiatuko dira gaur tolosarrak, Herriarteko Txapelketan

Hirugarren jardunaldi hauek Uzturpe pilotalekuan jokatu dituzte

## ERREDAKZIOA

Gaur 16:00etan hasita, Herriar-  
teko Txapelketako zesta-punta  
partidak izango dira Tolosako  
Santa Lutzia auzoko pilotale-  
kuan, Uzturpen, alegia. Nor-  
gehiagoka Beotibarren joka-  
tzekoa bazen ere, Udalak anto-

latutako Abiba diskojaia dela  
eta Uzturpen egitea erabaki  
dute antolatzaileek.

Herriarteko Txapelketaketa-  
ren baitan jokatzeko diren hiru-  
garren saio hauetan, tolosa-  
rren aurkariak donostiarrek  
izango dira. Hiru norgehiago-  
ka izango dira: kadeteak, jube-

nilak eta seniorrak. Orain arte  
emaitza onak lortu dituzte Beo-  
tibar Zesta-Punta taldeko pilo-  
tariak: lehenbiziko jardun-  
aldian 3 eta 0 irabazi zieten  
Andoingoiei, eta bigarren jar-  
dunaldian, 2 eta 1eko emaitza-  
rekin garaitu zituzten zumaia-  
rrak.

TOLOSA ▶

## Orixeko 3. mailako ikasleen guraso bilera

Etzi 19:00etan, Orixe Institu-  
tuko DBHko 3. mailako ikas-  
leen gurasoek informazio bi-  
lerra izango dute institutu-  
an bertan. Jorratuko dituzten  
gaiak laugarren mailako au-  
kerazkoak eta eta ibilbidea  
izango dira.

TOLOSA ▶

## Sanjoanetako estropadak prestatzen

Tolosako alkatetzarako hautagai diren bi zerrendaburu izango  
dira gaur Goiko irratian, FM-aren 107.00an, herritarren galderak  
erantzuteko prest. Jokin Bildarratz, EAJ-ko hautagaia 10:30ean  
ariko da eta 12:30ean Oscar Renedo, PSE-EEkoa. Tolosarrekin be-  
raien galderak zuzenean egin ahal izango dituzte posta elektro-  
nikoz, [goikoirratia@hotmail.com](mailto:goikoirratia@hotmail.com) helbidean edo 652 70 88 50 te-  
lefono zembakira deituta.

TOLOSA ▶

## Beotibar dantzaleku bihurtuko da berriz

Gaur gauean 21:00etatik  
05:00era bitartean Abiba  
diskojaia izango da Beotibar  
pilotalekuan. Hara joan nahi  
duenak sarrerak hiru euro  
ren truke erosi ditzake Kultur  
Etxean dagoen Gazte Topa-  
gunean edo egunean bertan,  
frontoiko sarreran. Bestalde  
festa berezi hau dela eta au-  
tobus zerbitzu berezia egon-  
go da gauerdetik aurrera.  
Ikaztegieta eta Berastegira  
joateko. Tartean, gainontzeko  
herrietan geldialdiak egingo  
ditu.



Abiba diskojaia Tolosan. HITZA

TOLOSA ▶

## Garajeen zozketa egingo dute ostegun honetan

Tolosan Udal Jabetzeko zoz-  
keta publiko bidez salduko  
diren garajeen zozketa (Eme-  
terio Arrese eta Trianguloan  
daudenak) ostegunean, hil-  
ak 17, zozketatuko dituzte  
20:00etan, Udaletxean.

LEITZA ▶

## Bengoetxea VI.ak gaur jokatu du Gonzalezen aurka

Buruz buruko txapelketan,  
Bengoetxea VI.a Gonzalezen  
aurka lehiatuko da gaur Za-  
rauzko Arizbatalde pilotale-  
kuan. 17:00etan hasiko da  
leitzararren eta lapurtarra-  
ren arteko norgehiagoka.

hitza

## Harpidedunen txokoa

Bi harpidedunentzako **bina afari zozketatu ditugu**  
**gaur Alegiko garagardo festan** afaltzeko!

Honako hauek dira irabazleak

▶ Izaskun Urbieta (Villabona) ▶ Arantxa Gorostidi (Amezketza)

**Alegiako**  
**IV. Zerbeza Festa**  
Garagardo desberdinak, txokiloa, saltxitxa, ...  
**Maiatzak 11 eta 12**  
Alegiako Elorri pilotalekuan

ELKARTASUNA ▶

# Haur sahararrak etxean

Abian da uztailean eta abuztuan haur sahararrak etxean hartzeko kanpaina; ekainaren 2a izango da izen emateko azken eguna



Pasa den urteko udan 15 saharar gazteko etorri ziren eskualdera, uda bertan igarotzera. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

**L**aster iritsiko da uda, eta horrekin batera familiako kide bereziei ongietorria emateko unea ere bai. Izan ere, urtero bezala, uztailean etorriko dira haur sahararrak eskualdera uda bertan igarotzeko asmoz.

Zortzi familia dira denera dagoeneko izena eman dutenak; oraindik, beraz, hainbat haur daude familiaren beharrean. Tolosako Udalak 10 haurrentzako laguntza ematen du eta 5 tolosar daude izena emanda; Ibarra, Alegian eta Villabonan haur batentzat ematen dute laguntza eta oraindik ez du inork egin eskaria; Leaburun, berriz 2 eta Anoetan haur bat hartzeko aukera ematen dute Udalek, eta baterik dago jada. Dena den, herri hauetakoak ez diren herritarrek ere, Udalak laguntza ez eman

arren, badute aukera parte hartzeko, gero elkarrekin arduratzen baita diru laguntza horiek lortzeaz. Animatzen direnek lehenbailehen egin beharko dute izen-ematea, ekainaren 2a baita azken eguna.

Duela 11 urte abiarazi zuten saharar gazteak aldi baterako etxean hartzeko programa. Eki-men honen bidez, Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetan bizi diren 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilak uztailean eta abuztuan, hemengo familiek etxeko bat gehiago bezala hartzeko aukera eskaintzen da. Hauek dira helburuak: haurrak desertuko tenperatura altuetatik eta are ekaitzetatik ateratzea; osasun arazoak detektatzeko edo sendatzeko mediku azterketak egitea; izan ditzaketen nutrizio akatsei aurre egitea; bi herrien arteko kultur harremanak mantentzea eta sakontzea; familiaren arteko adiskidetasuna eratzea eta sendotzea, bizitzaren jarraitzen laguntzeko; beraien egoeraz jabetzea eta gobernuen aurrean presionatzea, duten erantzukizuna beregaintzeko eta NBEK dekretatutako eta orain egin nahi ez den erreferenduma egitea eskatzeko.

ELI EIZAGIRRE ▶ SAHARA BIZI TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEKO KIDEA

## «Poztasuna eta kultura desberdin bat ezagutzeko aukera ematen dizu»

Eli Eizagirre leaburuarrak udan haur sahararrak etxean hartzeko kanpainaren inguruko xehetasunak azaldu ditu.

### Zer da beharrezkoa ekimen honetan parte hartzeko?

Gogoia zatea. Ume bat hartzea berez ez da zaila, eta ez dizu ematen hemengo batek ematen dizuna baino lan gehiago. Agian hasieran, lehen egunetan bereziki, arreta handiagoa eskaini behar diozu, baina ohitzen denera arte izaten da. Hori ez da gertatzen lehendik ere hemen izan direnekin.

### Zer ematen dio familia hartzaileari saharar bat etxean izateak?

Poztasun handia. Horretaz gain, beste kultura bat ezagutzeko aukera ematen dizu, izan ere, umea hartzean haren egoera hobeto ezagutu nahi izaten duzue, eta kanpamentuetara bisitan joateko aukera ere hor dago. Gainera, balore ugari ikasten dituzue, eskuzabaltasuna, esaterako.

### Familia hartzaileak ezaugarririk bete behar al du?

Ez, umeak badira familian oso

ondo dago, baina ez da beharrezkoa, izan ere, beste haur sahararrekin batera nahi izanez gero jardunaldiak ere antolatzen ditugu astean bitan edo hirutan. Gogoia eta nahia izatea, beraz, nahikoa da.

### Komunikazio arazoak izaten al dira?

Ez, eta izaten badira, elkarrekin hor egoten da laguntzeko prest.

### Haurrari ere onurak ekarriko dizkio hona etortzeak?

Bai. Hasteko, osasun azterketa osoa egiten zaie, errefuxiatuen

kanpamentuetan ez dutelako aukerarik horretarako. Begiraleak arduratzen dira haurrak sendagilearengana eramateaz. Elikagai aldetik, 2 hilabete hauetan ondo elikatzen dira. Eta udan desertuan izaten duten 50 gradu baino gehiagoko tenperatura ekiditen dute. Gainera, beste kultura bat ezagutzeko aukera dute, eta inoiz ikusi ez duten itsasoa, ibaiak edota mendiak ikusteko ere bai.

### Nolakoa da une honetan hango egoera?

Garai hauetan, beroa da nagusi, eta jende asko Mauritania aldera joan da; beraz, pentsa udan zer izango den. Euskal karabanak bidalitako janaria ari dira banatzen. ◀

KANPAINA ▶

### DATUAK

**Izen ematea.** Udaleko Gizarte Zerbitzuen bulegoan edo 943 69 74 60 zenbakira deituta, edo, Tolosaldea Sahararekin elkarteko zenbakian, 645 71 07 89.

**Epea.** Ekainaren 2a.

**Aldia.** Uztaila eta abuztua. **Gastuak.** Udalak gaztetzaren bidaiaren gastuak ordaindu eta pertsona bat kontratatzen du koordinazio lanak egiteko. Saharako begirale bat ere izango dute.

### Familia hartzaileak.

Pertsona bakarrekoak, seme-alabak dituztenak edo ez dituztenak edota jubilatuak izan daitezke.

**Baldintza.** Saharako herriari laguntzeko gogoia edukitzea.

### maiatzak 11 ostirala kantuan

20.00h. Alde zaharrean zehar **KALEJIRA TXISTULARIEKIN.** Tolosako alde zaharreko tabernako txikiteo herrikoia antolatutako dugu. Kantu liburuak banatuko dira nahi duen orok parte har dezan.

### maiatzak 12 larunbatadantzan

adin ezberdinetako dantzariak izango dira egun honetako protagonistak.

10.30h. **DANTZARI TXIKIAK** izango dira.

Trianguloan elkartu ondoren Tolosako kaleetan zehar dantzan izango ditugu.

18.00h. Berdura plazan **Leitzako AURRERA dantza taldea.**

22.30h. **ALURR - UDABERRI, Leidor zinemaren.** Egund honi amaiera emateko Tolosaldean ezagunak diren Alurr eta Udaberrri dantza taldeetako dantzariak izango ditugu Leidor aretoan.

### maiatzak 13 igandeamartxan

Asteburu honi amaiera emateko **HERRI BAZKARIA** izango da zerkausian.

**Norberak bere jakiak eman behar baditu ere, Elkarrekin 300 litro sagardo prest izango dituzte bazkaltzera animatzen diren guztion artean dastatzeko. Bazkari honen inguruan ondorengo ekitaldiak prestatu ditugu:**

12.30h. **KALEJIRA** (txaranga, trikitilariak...)

14.30h. Zerkausian, **BAZKARI HERRIKOIA** txaranga eta musika talde ezberdinez alaiturik.

**KUPELA dantza taldea** eta **BERTSOLARIAK.**

Euskal giroa sortzeko helburuarekin, antolatzaileak partehartzaile guztiei euskal jantziekin bagertzeko deia luzatzen du.



ESKOLA TXIKIEN KIROL TOPAKETA ▶

**INKESTA** ▶ Zer moduz pasa duzu? Gehien gustatu zaizuna zer da?

**LEIRE URRETBIZKAIA**  
UGANE, IKAZTEGIETA, 8 URTE



«Ondo pasa dut, ondo pasatzen delako. Pilotan, sokatiran, saltoka eta pilota botatzan ibili naiz. Aurten lehenengo aldiz etorri naiz».

**JOXAN ARANALDE**  
BERASTEGI, 12 URTE



«Ondo pasatzen ari naiz, kirola oso polita delako. Gehiena korrika egitea gustatu zait. Berrobiko eta Lizartzako jendea ezagutu dut».

**ELISABETH LOPETEDI**  
ABALTZISKETA, 8 URTE



«Bikain pasa dut, gozatu egin dudalako. Sokatiran ez dugu irabazi baina hori ez da inportanteena: ondo pasatzea da garrantzitsua».

**AITZOL OTAMENDI**  
ZIZURKIL, 10 URTE



«Ondo pasa dut. Txingak egin ditut eta arinak ziren, urez beteta bazeuden ere. Adunako jendea ere ezagutu dut eta jatorrak ziren».

**INIGO IRISARRI**  
ADUNA, 10 URTE



«Oso ondo pasatu dut gaurko topaketetan, jokuak oso politak ziren, eta korrika egitearena politena iruditut zait guztietan, arean saltoak egitea ere bai. Kirola egiteaz gain, Bidegoiango eta Berrobiko gazteak ere ezagutu ditut».

# Kirolak eskola txikiak batu ditu Berazubín

Beroaz, baina helburuak behar bezala bete zituzten



Jaurtiketan goian; beheran, ikusleen artean gehiago ezagutzen, eta zaku probako partaide bat. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Tolosako Berazubiko zelaian atzo Tolosaldeko eskola txikiak 208 ikasleak bildu ziren, Gabiriako eta Itsasondokoekin batera. Eskola Txikien IV. Kirol Topaketan bi orduz kirola egiten aritu ziren, indarrez berotzen zuen eguzkipean, tartean hamaiketakoakin.

Talde txikietan banatuta, eta adina ere kontuan hartuta, haurrek hainbat joko egin zituzten: sokatira, korrika, pilota jaurtiketa, arean saltoa, txingak, lokotxak, hesiak, zaku proba eta pilota. Haur guztiek erakutsi zuten haien poza eta alaitasuna. Jolastera egokitzen ez zitzaizkenez ere Berazubiko gradetatik animatu zuten. Beste behin, harremanak eta kirola ederki uztartu dituzte.

Beroarengatik bi ikasle zorabiatu egin ziren: «Energia handiarekin hasi ziren kirola egiten, eta arnas estuka, gehi bero

handia, bi ikasle erdi zorabiatu dira, baina ondo daude», argitu zuen eskola txikiak aurtengo koordinatzailea den Arantxa Oñedek.

## Zubietan, ekainean

Ekainaren 10ean Zubietan eskola txikiak jaialdia egingo dute eta berriz ere han bilduko dira, baina ez Tolosaldekoak bakarrik, Gipuzkoa mailakoa baita.

LIZARTZA ▶

**Mikel Olaetxea**  
pilotariak  
ekainean  
debutatuko du



Mikel Olaetxea. P. RENOBALES

## ERREDAKZIOA

Datorren ekainean Asegarcek debut bat aurkeztuko du bere egitarauan. Mikel Olaetxea pilotari lizartzarra profesionaletan estreinatuko da 22 urterekin, Tolosa-Bidaniako Aurrera-Saiaz klubetik etorrira.

Aurrelari gazte hau azkarrak da, ezker ona dauka eta errematzen trebea da, batez ere gantxuz, beti ere adituena arabera.

## DATUAK ▶

**Izena.** Mikel Olaetxea.  
**Kirol izena.** Olaetxea.  
**Jaiotze data.** 1985-02-10.  
**Herria.** Lizartza.  
**Postua.** Aurrelaria.  
**Garaiera.** 1,83 metro.  
**Pisua.** 73 kg.  
**Debuta.** Ekainean.  
**Igarotako pilota eskola.** Aurrera-Saiaz, Bidegoiango eta Tolosako pilota eskola.  
**Enpresa.** Asegarce.  
**Amateur palmaresa.** 2007ko Kluben artekoan txapelduna. Irungo Kurpil Kirolak torneooko txapelduna.

urteurrena ▶



I. urteurrena

**Ana Mendizabal**

2006ko maiatzaren 12an hil zen  
—Golan bego—

Zure alaitasuna eta maitasuna  
beti izango ditugu gogoan  
Lagunak

Urteurren meza, BIHAR IGANDEAN, HAMAIKETAN, Getariako Salbatore Deunaren elizan izango da.

GETARIA, 2007ko maiatzaren 12a



urteurrena ▶

I. URTEURRENA

**Ana Mendizabal Eizagirre.**

*Multak munipei!*

**Zure lagunak**

GETARIA, 2007ko maiatzaren 12a



HILBERRIAK  
URTEURRENEN  
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

VILLABONA ▶

**Olaederra Areto Futbol Torneoko finalerdiak, gaur**

Olaederra Areto Futbol Torneo bere azken txanpara iritsi da. Gaur izango dira finalerdiak. 14:00etan Pub Ekaitz eta Itzuli Taberna taldeen arteko norgehiagoka ikusi ahalgo da. Partida bukatu ostean, 15:00etan hasiko da beste finalerdia, No Somos Nadie eta Karheren artekoa. Partidak joaneok dira.

VILLABONA ▶

**Halterofiliako II. Euskadiko Liga gaur Olaederran**

Villabonako Olaederra kiroldegiko frontoian Halterofiliako II. Euskadiko Liga jokatu dute gaur, 17:00etan, kadete eta prosemesek. Gipuzkoako Selektzioa Danena-Olaederra Halterofilia Taldeko pultsulariek osatu dute. Eguraldiak lagunduko ez balu, kiroldegiko aerobik aretoan izango litzateke.

ADUNA ▶

**Kubako Gaua gaur Asvinenean**

Adunako Asvinenea arte eszenikoen laborategian Kubako Gaua antolatu dute gaur gaerako. Ezustekoak, mojitoak, ikuskizunak, kontzertuak, dantzak... antolatu dituzte. Artista gonbidatuak ere izango dira. Edgar Zapata (bolero abeslaria) eta La Academia de Conrado Garcia (ikusizuna eta dantza) izango dira artista horiek. Emanaldia 23:30ean hasiko da.

ALKIZA ▶

**Haurtzaindegian izena emateko aukera**

Hilaren 17tik 31ra bitartean Alkizako haurtzaindegian izena emateko epea irekiko da. Udalak, baina, interesatuei eskatu die hilaren 13a bitartean izena emateko udal bulegoetan, bere aurreikuspenak egin ahal izateko.

ZIZURKIL ▶

**Morau eta DJ Talo Aurrera tabernan, gaur**

Zizurkilgo Aurrera tabernan beste musika emanaldi bat izango dute gaur gauean. Kasu honetan, Morauk eta DJ Talok emango dute musika emanaldia. Sarrera doan izango da eta emanaldia 23:30ean hasiko da.

VILLABONA ▶

**'Aritza' hilabetekariaren 17. alea kalean**

Aritza kultur taldeak *Aritza* hilabetekariaren 17. alea argitaratu du. Bertan Jose Manuel Odriozolaren *Hizkuntzak berezkoa du identitatea* eta Jose Mari Espazaren *Cien razones por las que deje de ser español* artikulua agertzen dira eta baita Tolosaldeko Nafartarrek AUSA-Gaztelura hilaren 20an egingo duten mendi martxari buruzko informazioa. *Aritza* doan jaso daiteke Villabonako Larrea okindegian, Labezain okindegietan, Kixubi okindegian, Ogi-goixo okindegian, Sahatsa belardendetan, jubilatuen egoitzan eta udal liburutegian, eta Zizurkilgo Ogi-zuri okindegian, udal liburutegian eta Egarri jatetxean. Bestalde, kultur elkarrekin antolatutako *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroaren azken hitzaldia etzi izango da, 19:30ean, Gurea aretoan. Iñaki Egañak diktadura izango du hizpide.

AMASA-VILLABONA ▶ GIZARTEA



**Herriko erretratu zaharrak**

**Eredakzioa** ▶ Amasa-Villabonako erretratu zaharrak biltzen dituen liburua aurkeztu zuten atzo Gurea aretoan. Ainhoa Arozena kazetari billabonatarak egin du liburua. 500 orrialdetan argazki ugari biltzen ditu lan mardulak. Herriko ohiko lekuetan salgai dago dagoeneko. I. GARCIA

LARRAUL ▶ KULTURA

**Karmele Jaiok jaso du Beterriko Liburua Literatur Aipamena**

«Ohore handiz» hartu du 'Amaren eskuak' lanaren egileak

IMANOL GARCIA

Karmele Jaiok jaso du Beterriko Liburua Literatur Aipamena 2006 bere *Amaren eskuak* eleberrierengatik. Herenegun arratsaldean jaso zuen saria Larraulgo Antton Amonarriz kultur etxean. Sari banaketan izan ziren Jon Unanue Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakaria, Jon Urkaregi Larraulgo alkatea, Eloi Egibar epaimahai orokorreko epaimahaiburua eta Fernando Tapia Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua.

«Ohore handia da niretzat», esan zuen Jaiok saria jaso eta gero. Eskerrak eman zizkien bere alde botoak eman zituzten irakurleei. Bertsolariaren eta idazlearen arteko ezberdintasuna aipatu zuen ondo-



Karmele Jaiok. I. GARCIA

ren: «Bertsoa botatzerakoan, zuzenean jasotzen du bertsoariak bere lanaren emaitza. Idazleak zailagoa du bere lanaren iritzia jasotzea. Horregatik sari hau balio handikoa da».

Guztira 34 boto eman dituzte epaimahaikideek eta irakurle-

ek. Horietatik hamar *Amaren eskuak* eleberrierentzat izan dira. Besteak beste, saria ematerakoan aintzat hartu dira Jaiok erabilitako «hizkuntza argi eta freskoa» eta «sentimenduak lehen planoan jartzea. Horrek oso hurbileko bilakatu du liburua irakurle askorentzat, sarritan sentimendu horiek bere egiteraino».

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Salu). Apartamentua. 2 logela, 7 ohe, aire egokitu eta igerikua, Hondartza ondoan.  
Alokatzeko (Tolosa). Pisua San Frantzisko kalean.  
Alokatzeko (Tolosa). Pisua. Araba etorbidean.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantzisko n. Itxia.  
Salgai (Tolosa). Pisua "La Estrella" eraikinean.  
Salgai (Tolosa). Pisua Bizkaia kalean, gutuz eraberritua (Sputnik dorrean).  
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak barran.  
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

urteurrena ▶

I. urteurrena  
**Digna Azkue Uzin**  
2006ko maiatzaren 12an hil zen  
—Golan bego—  
Ilusioz gogoratu dituzte zure irribarrea gure bihotzak  
Zure senideak  
Urteurren meza, BIHAR IGANDEAN, HAMAIKETAN, Getariako Salbatore Deunaren elizan izango da. Aldez aurretik, mila esker.  
GETARIA, 2007ko maiatzaren 12a

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
Sukaldaria. Villabonako sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.  
Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da, lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 635 74 52 91 edo 943 69 43 13 zenbakietara.  
Langilea. Pertsona bat behar dugu ekitaldi muntaietarako. Dekoratuak, eskenatokia, aulkia jarri eta abar. Interesatuak 943 69 18 41 telefono zenbakira deitu lehenbailehen.

**Sukaldaria.** Emakume sukaldari bat behar da Tolosaldeko jatetxe baterako. Interesatuak deitu 606 61 52 93 telefono zenbakira.

**SALGAI**  
Aitzariak. Bigarren eskuko aitzariak salgai. Oso egoera onean. Interesatuak deitu 655 74 72 00 telefono zenbakira.  
Etxebizitza. Etxebizitza salgai Legorretan. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldaria eta balkoia. Erabat egokitu. 679 19 34 62.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK  
Jogurta  
Mahala baserrira - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** IV. Garagardo Azoka egingo dute, Intxurre KKEK antolatuta, 19:00etan irekita Elorri pilotalekuan.

**Anoeta.** Ezker abertzalearen eguna Anoetan: 10:00etan herriko baserriak eta artisauen VII. Azoka; 11:00etan pilota partidak; 13:00etan ekitaldia; 14:00etan txekor jatea; 17:00etan bertso poteoa eta 19:00etan erromeria.

**Berastegi.** Ulipe Pastoral Barrutiko gurasoentzat bereiziki, Kafe-solasaldia emango du Joseba Urkiolak (psikologoa eta Elizbarrutiak familientzako duen COF-Aholku etxeko kidea) *Gure haur eta gazteok baloreetan hezi gaiaz.* Berastegiko parroki-etxea izango da 16:00etan.

**Berrobi.** Kultur Astea: 8:00etan mendia marba helduentzat (Berrobi-Uli-San Lorenzo-Olantz-Berrobi); 10:00etan haurrak Olantera; 12:30ean hamaiketako mendizaleentzat; 16:00etan mus txapelketa Begi Gorri Gaztebean; eta 18:30ean toka txapelketa Solastoki aurrean.

**Bidegoian.** Agenda 21 prozesuko ekintza plana aurkeztuko dute udalbean. Herriar guztiak daude gonbidatuta.

**Irura.** Ikastolaren Eguna: 12:00etan ikasleen emanaldia, 14:00etan bazkaria eta 18:00etan Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

**Tolosa.** 10:30ean dantzari txikien ikuskizuna Trianguloan elkartu ondoren, kaleetan zehar; 18:00etan Berdura plazan bigarren saioa; eta 22.30ean Ibarro Alurr eta



**Aparrik gozoenak atzo eta gaur, IV. Garagardo Azokan**

**ALEGIA** ▶ Kañeroek eman zioten atzo hasiera Alegiko aurtengo Garagardo Azokari. Bederatzi garagardo ezberdin datatu ahal izango dira gaur ere. Intxurre Kirol elkarteak antolatutako bi egun hauetan afaltzeko aukera ere izango da, baina gaur. Intxurre futbol eta areto futbol taldeak aurtengo denboraldian ondo dabilza, eta bertan lortutako diruarekin hurrengo urteko mailetan jokatzeko

aukerak areagotuko lituzke. Elorri pilotalekuan 300 lagunek afaltzeko lekua prestatu dute. Menua ere erakargarria da. Herrian bertan prestatutako jai herritarrentzat eskura: ondo pasatzeko eta aldi berean laguntza emateko modua izango da gaurkoa atzoko gauarekin batera. **TOLOSALEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** izan da laguntzaile, Alegiko Udalarekin batera. **N. URBIZU**

Tolosako Udaberri dantza taldeek Leidor aretoan emanaldia eskainiko dute. Lizardi elkarteak antolatuta. **Tolosa.** Diskoia Abiba Beotibar pilotalekuan 21:00etatik 05:00etara. Sarrera, 3 euro. **Tolosa.** Donejakue Bideko azoka: zaldi ibilaldia Tolosalzaskun-Belabieta-Amasa-Andoain-Billabona-Anoeta-

Tolosa 9:00etan Santa Maria plazatik abiatuta; 17:00eta Santiago Boanerges-en *El Trueno* auto sakramental Arramelelizar; 18:30ean zaldi erromesei harrera.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El buen pastor* filma emango dute asteburuan

Leidor aretoan, gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 20:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
 (107.5, 101.2 FM)  
 11:00-14:00. *Hitza hegan.*

**Goiko irrati**  
 (107.0 FM)  
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**

Urtebetetzeak,  
 urrezko ezteiak,  
 ezkontzak,  
 jaioberriak...

**hitza**  
 agurren tarte



**URTE ASKOAN**  
 Lexuri Aizpurua de Paz (Asteasu). Gaur 2 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Jokin (Amezketeta) eta Josune (Ibarra). Ondo pasa ezazue zuen ezkontza egunean. Muxu handi bat etxekoan partetik.

**CJ BT**  
**JULIAN D TOLOSA**

Inoiz jango duzun txuletarik hoberena jan nahi baduzu, Julianera etorri, probatu eta berriro ere etorriko zara

**CJ BT**  
 Santa Klara kalea, 6  
 Tel.: 943 67 14 17  
 20400 Tolosa